

**Hirutasun Guztiz Santu ondorengo Igandean  
KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK (C)**

**Otoitza**

Jesu Kristo gure Jauna,  
sakramentu harrigarri honetan  
zeure nekaldiaren oroigarria utzi diguzu;  
egizu, arren,  
gorets dezagula begirune osoz zure Gorputz-Odolen misterioa,  
gugan suma ditzagun beti zure erospenaren ondorenak.  
Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean.

I. IRAKURGAIA: Has 14, 18-20

*Melkisedek ogia eta ardoa eskaini zituen.*

Hasiera libururik

Egun haietan, Melkisedek, Salengo erregeak, ogia eta ardoa eskaini zituen –Goi-goiko Jainkoaren apaiza baitzen–, eta bedeinkatu zuen Abram, esanez: «Bedeinka beza Abram Goi-goiko Jainkoak, zeru-lurren egileak.

Eta bedeinkatua izan bedi Goi-goiko Jainkoa, zure etsaiak zure esku jarri dizkizuna».

Eta Abramek guztiaren hamarrenak eman zizkion.

ERANTZUN SALMOA: Sal 109, 1. 2. 3-4

**R/. Melkisedeken sailean apaiz zara Zu  
behin betiko.**

Hona, Jaunak esana nire Jaunari:

«Eseri zakizkit eskuinean,

zure etsaiak oin-aulki jartzen dizkizudan bitartean». **R/.**

Siondik zabalduko du Jaunak

zure aginte-makilaren indarra:

«Izan zaitez nagusi zeure etsaien artean». **R/.**

Handiki zu jaiotegunetik santu-dirdaian,

intza bezala sortarazi zaitut artizarraren aurrean.

Jaunak zin egin du eta ez zaio damutuko:

«Melkisedeken saillean apaiz zara zu behin betiko». **R/.**

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 11, 23-26

*Ogi honetatik jaten,  
eta kaliza honrtatik edaten duzuen bakoitzean,  
Jaunaren heriotza adierazten duzue.*

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Jaunagandik harturik daukat nik, zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saltzekoa zuten gauean, ogia hartu eta, esker-otoitza eginda, zatitu zuela eta esan: «Hau nire gorputza da, zuentzat emango dena. Egizue hau nire oroigarri».

Era berean, kalizarekin ere afal ondoan, hitz hauek esanez: «Kaliza hau itun berria da nire odoletan; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri». Beraz, ogi honetatik jaten, eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza adierazten duzue, Bera etorri arte.

### **Neurtitza**

[Sion, goretsazu Jauna,  
Salbatzaille ta artzaina,  
gorazarre kantutan.  
Saia zaitez indar guztiz,  
motz geldituko baitzara  
haren gorespenetan.

Ogi bizi pizgarria,  
abestigai berezia  
egun eskaintzen zaigu.  
Azken afari santuan  
Hamabiei emana  
sendo sinesten dugu.

Aho betez, gogo betez,  
barneko pozetan gainez,  
goraipa dezagula.  
Urtebetetzea baita  
mahai santu hau lehenik  
Kristok sortu zigula.

Errege-mahai berrian  
 Pazko berriarekin da  
 Pazko zaharra galtzen.  
 Egunak gaua bezala,  
 Pazko berriak itzala  
 argiz du gaineztatzen.

Kristok azken afarian  
 Hark egina berritzeko  
 haren oroiz, zioen.  
 Hark agindu bezala,  
 ogi-ardoak ditugu  
 Gorputz-Odol egiten.

Kristauok dugu sinesgai:  
 ogia Gorputz, ardoa  
 Odol, dela bihurtzen.  
 Ez ikusiz, ez ulertuz,  
 baina beroki sinetsiz,  
 zalantza dugu gaintzen.

Ogi-ardo itxuretan,  
 ez ogi-ardo benetan,  
 badugu zertaz harri!  
 Gorputz-Odol banaetan  
 osorik dago bietan  
 Kristo gure janari.

Hartzen duenak ez hausten,  
 ez puskatzen, ez bereizten,  
 osorikan du jaten.  
 Batek hartu, milak hartu,  
 milak beste batek jan du,  
 janez ez da amaitzen.

On-gaiztoek berdin hartzen;  
 ez fruitu berdinarekin:  
 hari gozo, honi min.  
 Bata hil, bestea piztu,  
 janari bera jan, eta  
 zer azken banarekin!

Otamena puskatzean,  
 osoan hainbat zatian  
 badela, sinetsazu.  
 Itxura zati eginez,  
 Kristorik ez da zatitzen,  
 neurri berean duzu.]

Hona aingeruen ogia,  
 bidaztientzat janari;  
 semeen ogi garbia,  
 ez zakurrentzat jaki.

Isaaken oparian,  
 Pazkotako bildotsean,  
 «mana»-ren irudipean  
 zaigu adierazten.

Artzain on, egiazko ogi,  
 Jesus, kupi zakizkigu;  
 jan honetaz bizkor gaitzazu,  
 ta betiko atsedena  
 zeruan emaguzu.

Lurrean bizi geraino,  
 Zuk janaritzen gaituzu,  
 Ahaltso-jakintsu Horrek,  
 zeruan etxeko eta  
 mahai-lagun egin gu.  
 Amen. Aleluia.

EBANJELIOA: Lk 9, 11b-17

**Aleluia:** Jn 6, 51-52a

**R/.** Aleluia.

**V/.** Ni naiz ogi bizia zerutik jaitsia –dio Jaunak–;  
 ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. **R/.**

*Jan zuten denek, ase ziren arte.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jesusek Jainkoaren erreinuaz hitz egiten zien, eta sendatu beharra zeukatenak sendatzen zituen. Eguna bazihoan, eta Hamabiak etorri zitzaizkion, esanez: «Bidal ezazu jendea; doazela inguruetakoa auzo eta herrietara, eta bila dezatela ostatua eta jatekoa, hau leku bazterra da eta».

Jesusek esan zien: «Emaiezue zeuok jaten». Eta haiek erantzun: «Ez baitugu bost ogi eta bi arrain besterik! Geu joaten ez bagara, jende honentzako guztiarentzako jatekoak erostera...» (bost bat mila gizon baitziren). Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Eseraraz itzazue taldetan berrogeita hamarnaka». Hala egin zuten, eta denak eseri ziren.

Jesusek bost ogiak eta bi arrainak harturik, begiak zerura jaso eta, bedeinkapen-otoitza haiengan egin ondoren, zatitu zituen eta bere ikasleei eman zizkien, jendeari banatzeko. Jan zuten denek, ase ziren arte; eta gelditutako hondarrek hamabi saski bildu zituzten.

### **Oparigaien gainekoa**

Emazkiozu, Jauna, zeure Elizari batasuna eta bakea,  
 hori adierazten baitute  
 ekarri dizkizugun eskaintza hauek.  
 Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Jesus Jauna,  
 zeruko mahaiaren agiria eman diguzu  
 orain hartu ditugun zeure Gorputz-Odoletan;  
 eraman gaitzazu, arren,  
 zure jainkotasuna bete-betean ezagutzera.  
 Errege bizi baitzara.